

Zein da zure bezeroa?

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure bezeroak hein handian minbizia duten pertsonak dira, ile-galera jasaten dutenak bereziki tratamenduen ondorioz, hala nola, kimoterapia edo bestelako tratamendu agresiboak. Bezero horien artean emakumeak zein gizonak aurkitzen dira, adin tarte desberdinetakoak, baina batez ere tratamendua jasaten ari diren pertsonak. Denek dute helburu estetiko eta psikologiko hobe lortzea, beren itxura eta autoestimua mantendu nahi baitituzte prozesu gogor honetan.

Perfil horretako pertsonak, oro har, sentikortasun fisiko eta emozional handia dutenak dira, minbizia eta haren tratamendua bizitzeak eragin zuzena baitu ile-galerarekiko eta itxura-aldaketekiko duten pertzepzioan. Horregatik, kalitate handiko eta erosoa den pelukak bilatzen dituzte, azalarekiko atsegina eta itxura naturala eskaintzen duenak. Era berean, ez dute produktu bat bakarrik behar: askotan gida, laguntza eta aholkularitza bilatzen dituzte, peluka nola jantzi, nola zaindu eta nola mantendu jakiteko, baita prozesu emozionala eramateko sostengua ere. Eta horretarako gaude gu.

Gaixoaldiaren ondorioz ilea galdu dutenen artean, ekonomikoki kalitatezko ile orde bat erosteko zailtasunak izan ditzaketen pertsona orok gure proiektuaz aprobetsatzeko aukera izatea nahi genuen. Horretarako, ordaintzeko gai ez direnatzat diru-laguntzak ditugu. Beraz, ekonomikoki bakoitzak duen egoera ez denez kontuan hartzen, ileordea behar duten guztien eskura dago gure produktua.

Eta minbizia duten gaixoez aparte, bada beste merkatu nitxo bat, ilea galdu dutenen pertsonena. Estresaren eraginez ilea galdu dutenak, ilerik gabe jaio direnak, edota edadeagatik ilerik gabe geratzen ari direnak, azken hauek gehienak gizonezkoak eta 40 urtetik gorakoak.